



### Lana / La obra

Gasteiz, 2008ko otsaila. Amelia Zabaletaren testamentuak agerpen harrigarri eta ezusteko bat atera du azalera: ardura handiz gordetako sekretu bat, hildakoaren iraganari eta haren hurbileneko senideei lotua.

Jon Martínez de Albeniz ikertzaile xumea arduratuko da misterioa argitzeaz. Baina zer arazoik eragin dezake familia batentzat hain garrantzikoa den zerbait ezkutuan gordetzea, XXI. mende bete-betea? Zerk bultzatuta iruten du jende arruntak mataza trinko bat, isiltasunaren argudioa oinarri harturik? Azken batean, zer gertatu zen agertoki horietan, orain hirurogeita hamar urte?

Toti Martínez de Lezea bere hiriaren barrena arakatzen ditu, ezagunak zaizkion pertsonaiak sortu eta isiltasun deseroso baten mende bizi zen gizarte bat irudikatzen.

### Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Isilpean gordea**  
Egilea / Autor: **Toti Martínez de Lezea**  
Saila / Colección: Narratiba, 93  
ISBN / EAN: 978-84-9109-044-1  
Salneurria / Precio: 18,50 € (BEZ barne – IVA incluído)  
Orri kopurua / Nº páginas: 264  
Formatua / Formato: 15 x 22 cm



### Lana / La obra

**Toti Martínez de Lezea** (Gasteiz, 1949). Gaur egun Larrabetzun bizi da. Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaile izan zen, eta itzulpen lanez gainera, gidoiak, hezkuntzako bideoak eta telebistarako haur saioak egin zituen, 1983 eta 1992 urteen bitartean.

1986an *Euskal Herriko leiendak* bilduma idatzi zuen. 1998 urtean argitaratu zuen bere lehenengo eleberria: *Judu-kale*. Haren ondoren etorri ziren: *Antsoren dorreak*; *Kattalin*; *Señor de la Guerra*; *Maria Galanta, abadesa*; *Ogaiztarrak*; *La voz de Lug*; *La Comunera*; *El verdugo de Dios*; *Hautsi da katea*; *Los grafitis de mamá*; *A la sombra del templo*; *Sorginak*; *La Brecha*; *El jardín de la oca*; *Placeres reales*; *Otalorea*; *Perlas para un collar* (Ángeles de Irisarriekin batera); *La Universal*; *Pozoia Koroari*; *Urak dakarrena*, *Egunsentiko argia* eta *Enda Lur*.

Idazle emankorra da, eta gazte literaturan ere jardun du. *Erregearen mezularia*, *Ilargiaren alaba*, *Antso III. Nagusia* eta *Muerte en el priorato* dira horren erakusgarri.

Haur literaturan egin du azken saiakera *Nur* pertsonaiarekin; liburu horretako protagonista idazlearen beraren biloban oinarritua da.

Frantsesera, alemanera, portugesez eta errusierara itzuli dituzte bere lanak, eta hainbat komunikabidetako kolaboratzaile aritzen da.